



ABALTZISKETA

2017KO ABENDUAK 13, OHIKO BILKURAKO AKTA

Organoa: Abaltzisketako Osoko Bilkura.

Lekua: Abaltzisketan

Ordua: 19:00etan

Deialdia: Lehenengoa

Bildutakoak: Jon Zubizarreta. Alkatea

Adur Gorostidi. Zinegotzia

Kepa Gorostidi .Zinegotzia

Felix Maioz .Zinegotzia

Aritz Garmendia .Zinegotzia

Jose Mari Egunez .Zinegotzia

Mikel Senperena.Zinegotzia

Idazkaria: Nekane Lopetegi

GAI ZERRENDA

1. 2017-09-28 bilkurako akta onartzea hala balegokio.
2. 2018 urterako aurrekontua eta plantillari onarpena ematea.
3. 2018-2019rako diru-laguntzen plan estrategikoa onartzea.
4. Alkatearen ebazpenak onartzea:
 - i. 2017/30... Iraileko fakturak
 - ii. 2017/32....begiraleen ikastaroa
 - iii. 2017/33...Ingeleseko klaseak emateko gela
 - iv. 2017/34....Iberdrolari baimena
 - v. 2017/35... urriko fakturak
 - vi. 2017/36....G.U lizentzia
 - vii. 2017/37... Harituz bertsozale elkartea
 - viii. 2017/38....Egutegi fiskala
 - ix. 2017/39:...Azaroso fakturak
 - x. 2017/40... J.E. lizentzia
5. 2017-02 kreditu aldaketa onartzea.
6. 2017ko 2. seilabeteko zabor errolda onartzea .
7. Alkateak azaroaren 20an, Ostatu eta Eskolaren eremua handitu eta atontzeko proiektua onartu duela jakitera ematea , Leader diru-laguntzara bideratzeko.



ABALTZISKETA

8. Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernantzako eta Gizartearekiko komunikazioko departamentuaren eta Udalaren arteko lankidetzaren hitzarmena, entitateen kontaktu datuak lagatzeari buruzkoa onartzea.
9. Galderak eta eskaerak.

1- 2017-09-28 BILKURAKO AKTA ONARTZEA HALA BALEGOKIO.

Alkateak bilerari hasera eman ondoren, 2017-09-28ko Bilkurako aktaren izenburuak irakurtzeari ekiten zaio. Bertan, hitzez hitz irakurtzen ez bada ere, izenburuak komentatu eta laburtzen dira. Mahaikideen aldetik aurkakorik esan ez denez, dagoen bezala onartutzat eman da.

2- 2018 URTERAKO AURREKONTUA ETA PLANTILLARI ONARPENA EMATEA.

2018 urterako, Abaltzisketako Udalak izango duen aurrekontua aurkeztu da onarpena emateko. Eta aldi berean, Abaltzisketako udaleko plantilla ere aurkeztu da, berau, aurreko urteetako berdina izanik.

2018KO EKITALDIA

GASTUEN EGOERA

<u>Kapitulua</u>	<u>Azalpena</u>	<u>Euroak</u>
1	Pertsonalaren lansariak	164.811,15
2	Gastu korront.eta zerb. Gastuak	93.530,00
3	Gastu Finantzieroak	
4	Transferentzi korrontek	50.700,00
6	Inbertsio errealak	94.456,85
7	Kapital transferentziak	5.500,00
9	Pasibo finantzieroak	
	<u>Guztira</u>	<u>408.998,00</u>

SARREREN EGOERA



ABALTZISKETA

<u>Kapitulua</u>	<u>Azalpena</u>	<u>Euroak</u>
1	Zerga zuzenak	51.600,00
2	Zeharkako zergak	5.000,00
3	Tasak eta beste sarrerak	31.990,00
4	Transferentzi korronteak	307.698,00
5	Ondare Sarrerak	10.910,00
7	Kapital Transferentziak	1.800,00
	<u>Guztira</u>	<u>408.998,00</u>

2018 urteko aurrekontuari dagokion egonkortasun eta iraunkortasun legea betetzearen txostena idazkariak luzatu du:

AURREKONTU EGONKORTASUNAREN ETA FINANTZA IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK ETA GASTU ARAUA BETETZEARI BURUZKOA

ARAUDI APLIKAGARRIA:

- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.
- 1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena.
- Diputatuen Kontseiluaren akordioa, 2014ko azaroaren 18koa, Jarraibidea onartzen duena finantza tutoretzaren eskumena garatzeko Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan.

AZTERTUTAKO TRAMITEA: 2018ko Aurrekontua

FORU ARAUAREN 1.2.a) ARTIKULUKO ENTITATEAK (administrazio izaera dutenak)

1- ENTITATE ZERRENDA:

ABALTZISKETA

2- HELBURUAK BETETZEARI BURUZKO EGIAZTAPENA

Aurrekontuen egonkortasuna

Aurrekontuaren espedientea kontuan hartuta, toki entitate honek 0,00 euroko superabita du, SEC Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarraren arabera. Ondorio horretarako, ez denez aurreikusten ondorengo doiketarik beharko duen eragiketa adierazgarririk, kalkulu hori 1etik 7ra



ABALTZISKETA

bitarteko kapituluetakoko sarreraren eta 1etik 7ra bitarteko kapituluetakoko gastuen arteko diferentziarekin parekatu da, goian zerrendatutako entitateen kontuak bateratuta.

2018rako ezarritako helburua defizita zero izatea da.

Hori dela eta, aurrekontuaren espedientea kontuan hartuta, toki entitate honek bete egiten du aurrekontu egonkortasunaren 2018rako helburua.

Finantzen iraunkortasuna

2018ko abenduaren 31n, goian zerrendatutako entitateen zor bizia, guztira, 2017ean likidatutako sarrera arrunten % 0,00 izango dela aurreikusten da. Kalkulua egiteko, 2016eko abenduaren 31ko zor biziaren zenbatekotik abiatu gara, indarrean ziren eragiketa guztiengatik, abaletatik eratorritako arriskua barne; emaitzari gehitu zaizkio hitzartu diren eta erabili gabe dauden eragiketak eta 2018ko aurreikusitakoak, eta kendu zaizkio 2017rako aurreikusitako amortizazioak. Zor biziaren zenbatekoan ez dira sartu UFFFarengatik itzuli gabe gelditzen diren saldoak.

2018rako ezarritako helburua magnitude hori %75,00 baino handiagoa ez izatea da.

Hori dela eta, aurrekontuaren espedientea kontuan hartuta, toki entitate honek bete egiten du finantza iraunkortasunaren 2018rako helburua.

Gastuaren araua

2017eko behin betiko aurrekontua eta 2018ko ekitaldiko haserako aurrekontuaren artean, gastu konputagarriaren bariazioa % 2,4 da.

Aurreko kalkulua egiteko, goian zerrendatutako entitateen datu bateratuak erabili dira, ondoko taulan xehatzen den moduan:

GASTU KONPUTAGARRIAREN BARIAZIOA		
a1	2018eko gastu ez finantzarioa (kap:1etik 7ra)	408.998,00
a2	SEC doiketak ¹	0,00
a3	2018eko interesak	0,00
a4	Beste entitateei ordaindutako transferentziak (434.01)	1.500,00
a5	Finantzaketa lotua duen gastua 2018ean	27.400,00
a=a1+a2-a3-a4-a5	2018eko gastu konputagarria	381.598,00
b1	2017ko gastu ez finantzarioa (kap:1etik 7ra)	439.955,56
b2	SEC doiketak ²	0,00
b3	2016ko interesak	100,00
b4	Finantzaketa lotua duen gastua 2016an	29.600,00
b5	Araudian eta kudeaketan egindako aldaketan eragina	0,00
B6	Beste entitateei ordaindutako trans.(434.01)	2.00,00
b=b1+b2-b3-b4-b5-b6	2017ko gastu konputagarria	369.836,00
c=(b/a-1)*100	Gastu konputagarriaren bariazioa (%tan)	-6,52%

¹ Doiketen zenbatekoa adierazgarria den kasuan bakarrik.

² Doiketen zenbatekoa adierazgarria den kasuan bakarrik.



ABALTZISKETA

2018rako ezarritako helburua gastu konputagarriaren bariozioa % 2,40 baino handiagoa ez izatea da.

Hori dela eta, aurrekontuaren espedientea kontuan hartuta, toki entitate honek betetzen du 2018rako gastuaren araua.

3- ONDORIOAK

2018 urteko aurrekontuak aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren helburuak eta gastua araua betetzen ditu .

2018KO PLANTILLA ORGANIKOA

KARRERAKO FUNTZIONARIENTZAT GORDETAKO LANPOSTUAK

Lanpostuaren izena	Lanpost.kop.	Taldea 6/89 Legea 43 art.	Egoera
Izaera Nazionaleko gaikuntza eskala Idazkari Kontuhartzailea	1	A	Jabetzan



ABALTZISKETA

**PERTSONAL LABORALENTZAKO GORDETAKO
LANPOSTUAK**

Lanpostuaren izena	Lanpost.kop.	Taldea 6/89 Legea 43 art.	Egoera
<u>Administrazio Orokorra eskala</u>			
Administrari Laguntzailea	1	C2	Finkoa
Gizarte Langilea	1	B	Behin Behinekoa
Admistrari Laguntzailea	1	C2	Behin behinekoa
<u>Administrazio bereziko eskala</u>			
Eginkizun anitzetako langil.	1	D	Finkoa
Etkez etxeko langilea	1	E	Behin behinekoa



ABALTZISKETA

2018KO LANPOSTUEN ZERRENDA

Karrerako funtzionarioei erreserbatutako lanpostuak

Ord. Zk.	Izena	Lanp. Kop.	Taldea	Hornitze. era	Ordainketa osag.		Dedik.	Buleg.	Lanpostu horretarako exijitutako ukanbeharrak					
					Dest. Osakin. maila	Osaga- rri espez.			Adskripzioa			Hizkuntza eskakiz.		
									Talde Eskal.	Azpi- eskala	Klas	Koe- fizie.	Agind. data	Exij. Titul.
1	Idazkari Kontuhartzail	1	A	L	18	7.165,90	%40	ID	HN	IK	3	4	96-06-30	Dip.

Pertsonal laboralentzako gordetako lanpostuak

Ord. Zk.	Izena	Lanp. Kop.	Taldea	Hornitze. era	Ordainketa osag.		Dedik.	Buleg.	Lanpostu horretarako exijitutako ukanbeharrak					
					Dest. Osakin. maila	Osaga- rri espez.			Adskripzioa			Hizkuntza eskakiz.		
									Talde Eskal.	Azpi- eskala	Klas	Koe- fizie.	Agind. data	Exij. Titul.
2	Administrari Laguntzailea	1	C2		13	10.347,26	%55	Ad.				3	96-06-30	FP1
3	Eginkizun Anitz.langil.	1	D		11	16.948,54	%100	Ad.				2	96-01-01	Grad Esko



ABALTZISKETA

Behin behineko pertsonal laboralentzako gordetako lanpostuak

Ord. Zk.	Izena	Lanp. Kop.	Taldea	Hornitze. era	Ordainketa osag.		Dedik.	Buleg.	Lanpostu horretarako exijitutako ukanbeharrak					
					Dest. Osakin. maila	Osaga- rri espez.			Adskripzioa			Hizkuntza eskakiz.		
									Talde Eskal.	Azpi- eskala	Klas	Koe- fizie.	Agind. data	Exij. Titul.
4	Etkez etxeko langilea	1	E		8	10.129,28	%100	Ad.				2	96-01-01	Grad Esko
5	Gizarte Langilea	1	B		14	1.329,72	%8,9	Ad.				3	07-11-05	Dip.
6	Administrari laguntzailea zerbitzu sozialetan	1	C2		9	644,70	%4,4	Ad.				3	96-05-01	FP1

Mahaikideek ERABAKI DUTE :

1- 2018 ekitaldiko aurrekontuaren espedienteari hasera onarpena ematea. Udal Erregimenari buruzko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 1/1985 Legeko 112.3 artikuluan, Udal Entitateen Aurrekontuari buruzko otsailaren 26ko 4/1991 Foru Araueko 15.1 artikuluan eta Udal Entitateen Aurrekontuaren Araudia onartzen duen abenduaren 1eko 96/1992 Foru Dekretuko 19.1 artikuluan ezarritakoa betez. Eta bide batez , udaleko plantilla organikoari ere haserako onarpena ematea.

2- FAKo 17.1 artikuluan eta eta FDko 21.1 artikuluan aipatutako interesatuek Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik kontatuta hamabost egunetako epean alegazioak tarteratu daitezke.

3- Jendaurreko epea iragan eta legaziorik tarteratu ezean, behin betikotzat onartua emango da, erabaki berririk hartu beharrik gabe.



ABALTZISKETA

3- 2018-2019RAKO DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA ONARTZEA.

2018-2019 DIRU LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA

ATARIKOA

Oinarrizko izaera duen diru laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 lege orokorreko 8.1 artikulua honako hau dio: «administrazioko organoek edo diru laguntzak ezartzea proposatzen duten beste guztiek, aldez aurretik, Diru-laguntzen Plan Estrategiko baten zehaztu beharko dituzte horien aplikazioarekin lortu nahi dituzten helburuak eta eraginak, horiek guztiak lortzeko behar den epea, ustez egongo diren kostuak eta finantzazio iturriak. Plana burutzeko ezinbestekoa izango da beti aurrekontuen egonkortasunerako helburuak bete tzea».

Azaroaren 17ko 38/2003 legeko hamahirugarren xedapen gehigarriak ezartzen du legezko arau edo erregelamenduetan aurreikusitako politika publikoei buruzko plan edo programak Diru-laguntzen Plan Estrategikotzat joko direla edo 38/2003 legeko 8.1 artikuluan aurreikusitako edukia jasoko dutela.

Diru laguntzen lege orokorra beste urrats bat da sistema ekonomikoa hobetzeko eta arrazionalizatzeko prozesuan. Legea zuzentzen duen printzipioetako bat gardentasuna da, eta horrek modu zuzenean du eragina diru laguntzetarako gastu publikoaren kudeaketaren eraginkortasun eta efizientzia mailaren igoeran. Zentzu horretan, diru laguntzei buruzko informazio gehiago izateak merkatuan eragina izan ditzaketen distortsio eta interferentziak kentzea ahalbideratuko du, eta administrazio publikoen jardunen osagarritasuna eta koherentzia erraztuko du, edozein motako gainjartzea ekidinez.

Eraginkortasuna hobetzeko Diru laguntzei buruzko Plan Estrategikoa egitea aurreikusten du araudiak. Plan hori diru laguntzak sortu aurretik egin beharko da.

Plan hau hainbat urtetarako izateko bokazioz egin da, beti ere urtero beharrezko izan daitezkeen aldaketak egin beharko bazaizkio ere.

Horregatik, Udal honek Diru laguntzen Plan Estrategikoa onartu du. Planak ondorengo artikulua ditu.



ABALTZISKETA

I. KAPITULUA XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.

Abaltzisketako Udalak emango dituzten diru laguntzak, Abaltzisketako Udalean indarrean dagoen dirulaguntzak emateko Araudiaren, Diru-laguntzen lege orokorraren, Plan honen, dagozkion hitzarmenen eta diru laguntzak emateko urtero egingo diren deialdien oinarrien arabera emango ditu.

2. artikulua.

Plan honetan aurreikusitako diru laguntzak eraginkorrak izateko, dagozkion kontsignazioak sartu beharko dira urte bakoitzeko udal aurrekontuetan eta diru-laguntzak arautzeko oinarriak onartu.

Diru-laguntzak aurrekontuetan jaso eta emateko baldintza izango da aurrekontu egonkortasun helburuak betetzea, eta beraz, onartuko diren aurrekontu kontsig nazioak eta diru laguntzak arautzen dituzten oinarriak uneoro helburu horietara egokitu beharko dira.

3. artikulua.

Diru-laguntza Plan Estrategiko hau onartzeak ez du inolako eskubiderik sotzen onuradun izan daitezkeenentzako, eta ezingo dute inolako kalte ordainik edo konpentsaziorik eskatu Plana ez bada bere horretan betetzen.

4. artikulua.

Udalak, deialdi publiko bidez edo lankidetzaz-hitzarmenak eginaz, diru-laguntzak emango dizkie pertsoneri, elkarteei edo erakunde pribatuei herri onurako edo gizartearen intereseko jarduerak egiteko edo udal eskumeneko helburu publikoak lortzeko.

5. artikulua.

Plan honen printzipio orokorrak honako hauek dira:

— Publizitatea eta lehiakortasun askea aurrez egindako deialdi bidez. Bertan, objektibitatea, gardentasuna, publizitatea, lehiakortasuna eta fondo publikoen banaketan berdintasuna bermatu beharko dira, hori guztiori, emakida zuzenaren kaltetan gabe. Emakida zuzenak, aplikatu dakioken arauan ezarritakoaren arabera, aurrez dagokion aurrekontu kontsignazioa izan beharko du.



ABALTZISKETA

— Aurrez deialdian ezarritako irizpide objektiboen arabera egingo da emakida, onuradun izan daitezkeenak irizpide horiek aurrez ezagutzen dituztela bermatzeko.

— Eraginkortasuna jarritako helburuak betetzerakoan eta efizientzia baliabide publikoak esleitzerakoan, kantitate eta kalitate aldetik justifikatu beharko delarik.

— Diru-laguntza eskatzen duten erakundeen helburuak diruz lagundutako jardueretan berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioetara egokitzen direla kontrolatzea eta aztertzea.

— Plan Estrategikoaren egokitasuna uneoro egiaztatzea.

Hau da: Plana termino sozialetan justifikatzea. Planak kontuan hartzen dituen herritarren beharrak. finantza gaitasuna. Arlo horretako udal eskumena azaltzea.

6. artikulua.

Diru-laguntzak emateko eskuduntza, eta beraz, diru-laguntzen Plan Estrategikoa exekutatzekoa, indarrean dagoen eskuduntza udal araubidearen araberkoa izango da. Beraz,

__Diru-laguntza programak aurrekontu zuzkidura egokia eta behar bestekoa egotearen menpe daude.

__Diru-laguntzak edo emakida zuzenak (hitzar menak) eman aurretik gastua onartu beharko da Abaltzisketako Udaleko aurrekontu arauetan aurreikusitako moduan.

__Eta, azkenik, diru-laguntzak eman aurretik, emakida arautzen dituzten arauak edo oinarriak onartu beharko dira.

II. KAPITULUA PLANAREN EDUKIA

7. artikulua.

Abaltzisketako Udalak eta bere menpeko erakundeek diru-laguntzak emango dituzte urtero, ondoko lerro estrategiko eta helburu zehatzen baitan:



ABALTZISKETA

8. artikulua.

Abaltzisketako Udalak emango dituen diru-laguntzak, Abaltzisketako Udalean indarrean dagoen diru laguntzak emateko Araudiaren, Diru-laguntzen lege orokorraren, Plan honen, dagozkion hitzarmenen eta diru-laguntzak emateko urtero egingo diren deialdien oinarrien arabera emango ditu.

9. artikulua.

Plan honetan aurreikusitako diru-laguntzak eraginkorrak izateko, dagozkion kontsignazioak sartu beharko dira urte bakoitzeko udal aurrekontuetan eta diru-laguntzak arautzeko oinarriak onartu.

Diru-laguntzak aurrekontuetan jaso eta emateko baldintza izango da aurrekontu egonkortasun helburuak betetzea, eta beraz, onartuko diren aurrekontu kontsignazioak eta diru laguntzak arautzen dituzten oinarriak uneoro helburu horietara egokitu beharko dira.

10. artikulua.

Diru-laguntza Plan Estrategiko hau onartzeak ez du inolako eskubiderik sortzen onuradun izan daitezkeenentzako, eta ezingo dute inolako kalte ordainik edo konpentsaziorik eskatu Plana ez bada bere horretan betetzen.

11. artikulua.

Udalak, deialdi publiko bidez edo lankidetzaz-hitzarmenak eginaz, diru-laguntzak emango dizkie pertsoneri, elkarteei edo erakunde pribatuei herri onurako edo gizartearen intereseko jarduerak egiteko edo udal eskumeneko helburu publikoak lortzeko.

12. artikulua.

Plan honen printzipio orokorrak honako hauek dira:

— Publizitatea eta lehiakortasun askea aurrez egindako deialdi bidez. Bertan, objektibitatea, gardentasuna, publikitatea, lehiakortasuna eta fondo publikoen banaketan berdintasuna bermatu beharko dira, hori guztiori, emakida zuzenaren kaltetan gabe. Emakida zuzenak, aplikatu dakiokkeen arauan ezarritakoaren arabera, aurrez dagokion aurrekontu kontsignazioa izan beharko du.

— Aurrez deialdian ezarritako irizpide objektiboen arabera egingo da emakida, onuradun izan daitezkeenak irizpide horiek aurrez ezagutzen dituztela bermatzeko.



ABALTZISKETA

— Eraginkortasuna jarritako helburuak betetzerakoan eta efizientzia baliabide publikoak esleitzerakoan, kantitate eta kalitate aldetik justifikatu beharko delarik.

— Diru-laguntza eskatzen duten erakundeen helburuak diruz lagundutako jardueretan berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioetara egokitzen direla kontrolatzea eta aztertzea.

— Plan Estrategikoaren egokitasuna uneoro egiaztatzea.

Hau da: Plana termino sozialetan justifikatzea. Planak kontuan hartzen dituen herritarren beharrak, finantza gaitasuna eta Arlo horretako udal eskumena azaltzea.

13. artikulua.

Diru-laguntzak emateko eskuduntza, eta beraz, diru-laguntzen Plan Estrategikoa exekutatzekoa, indarrean dagoen eskuduntza udal araubidearen arabera izango da. Beraz,

- Diru- laguntza programak aurrekontu zuzkidura egokia eta behar bestekoa egotearen menpe daude.
- Diru- laguntzak edo emakida zuzenak (hitzarmenak) eman aurretik gastua onartu beharko da Abaltzisketako Udaleko aurrekontu arauetan aurreikusitako moduan.
- Eta azkenik, diru-laguntzak eman aurretik, emakida arautzen dituzten arauak edo oinarriak onartu beharko dira.

II. KAPITULUA PLANAREN EDUKIA

14. artikulua.

Abaltzisketako Udalak diru-laguntzak emango ditu urtero, ondoko lerro estrategiko eta helburu zehatzen baitan:

1. Lerro estrategikoa 1. Hezkuntza sustatzea.

- Helburu estrategikoa:



ABALTZISKETA

Herrian hezkuntza berrikuntza sustatzea eta herritarrei zuzendutako kultur eskaintza hobetzea.

- Helburu zehatzak:

Hezkuntza eragileak herriko haur eta gazteentzako antolatzen dituzten hezkuntza ekitaldiak laguntzea.

- Exekuzio epea: Urterokoa.
- Finantziazio iturriak: Udalaren funts propioak, urteroko aurrekontuaren kontura.

2. Lerro estrategikoa 2. kultur dinamizazioa.

- Helburu estrategikoa:

Herriko kultur elkarteei laguntza eman, herriko kultur ekimenak zabaldu eta sustatzeko eta Abaltzisketako herria ezagutzera emateko.

- Helburu zehatzak:

Kultur jarduerak burutzen dituzten herriko elkarteei laguntzak ematea: guraso elkarte eta herriko beste eragile hainbat ekintza antolatu dituztelako.

Gazteen parte-hartzea lagundu, zabaldu eta sustatzea gazteentzako jarduerak antolatuz.

Herria ezagutzera emateko burutuko diren ekintzak laguntzea.

- Exekuzio epea: Urterokoa.
- Finantziazio iturriak: Udalaren funts propioak, urteroko aurrekontuaren kontura.

3. Lerro estrategikoa 3. Euskara sustatu.



ABALTZISKETA

- Helburu estrategikoa:
Euskararen oinarrizko eta ahozko ezagutza eta erabilera sustatzea.
- Helburu zehatzak:
Adin nagusikoei eta euskara ezagutzen ez dutenei ikasteko erraztasunak eskaintzea herrian bertan taldea osatuaz.
- Exekuzio epea: Urterokoa.
- Finantziazio iturriak: Udalaren funts propioak, urteroko aurrekontuaren kontura.

4. Lerro estrategikoa 4. kirolaren sustapena.

- Helburu estrategikoa:
Herritar guztiei beraien kirol jarduera eskaera asetzeko aukera ematea eta bizi kalitatea hobetzeko jarduera osasungarriak sustatzea kirol erakunde, elkarte eta federazioekin elkarlanean arituz.
- Helburu zehatzak:
Ahalik eta jende gehienak kirola egitea sustatzea ohitura osasungarri eta gomendagarri bezala.
Kirol jarduerak egiteko zein kirol instalazio sarea erabiltzeko baimena ematea.
Eskola-kirola jarduera sustatzea ikastetxeetan eta ikastetxe kanpo orduetan.
- Exekuzio epea: Urterokoa.
- Finantziazio iturriak: Udalaren funts propioak, urteroko aurrekontuaren kontura.

5. Lerro estrategikoa Herritarrek ondarea eta ingurumena zaintzeagatik.

- Helburu estrategikoa:
Herritarrek, herriko ondarea, nahiz pribatua zaintzeko egiten dituzten obra, berrikuntza edo eraberritze lanetan, eta, inguruneko urbanizazio



ABALTZISKETA

edo lur egokitze lanetan, ordaindutako kuotaren %80eko laguntza eska dezakete.

- Helburu zehatzak:
Abaltzisketako udalerrian erroldatu eta herritarrek direnak, beren eremua zaindu eta berritze lanetarako bultzatea, baserrien, etxeen eta inguruko lurren abandonoa edo bazterkeria saihesteko.
- Exekuzio epea: Urterokoa.
- Finantziazio iturriak: Udalaren funts propioak, urteroko aurrekontuaren kontura, beti ere udalak dagokion obra eta eraikuntza baimena onartu dioenean.

15. Artikulua.

Eranskinean zehazten dira aurrekontuak aurreikusitako diru-laguntzak. Laguntzak ondorengo irizpideen arabera zerrendatuta agertzen dira eranskin bakoitzean:

Aurrekontu partida.

Azalpena: irizpide horrekin diru laguntza zein helburutarako erabiliko den zehazten da, gero helburu hori ebaluatu ahal izateko.

Zenbatekoa. Urteroko kontsignazioa.

Kudeaketa mota: irizpide horrekin diru laguntza emateko aplikatu beharreko prozedura aurreikusten da (lehiakortasun askea, lankidetzaz hitzarmena, programa).

Lerroa: Dirulaguntza atxekitzen den lerro estrategikoa.

III. KAPITULUA DIRUZ LAGUNDUTAKO PROGRAMEN ERAGINKORTASUN AZTERKETA. KONTROLA ETA EMAI TZEN AZTERKETA

16. Artikulua.



ABALTZISKETA

Diru-laguntza bakoitzaren eraginkortasuna hobeto aztertzeko, diru-laguntzak ematen dituzten departamenduek txosten arrazoitua eskatuko diete diru laguntzak jasotzen dituztenei.

Txostenean, besteak beste, garatutako ekintzen azalpena eta lortutako helburuak justifikatu beharko dira.

Zehazki, ebaluatu ahal izateko honako hauek zehaztu beharko dira:

- Helburua.
- Diru-laguntza jasotzen duen erakundea, eta hala bada, laguntzailea.
- Diru-laguntzaren zenbatekoa.
- Diru-laguntzarekin egindako ekintza zehatzak.
- Diruz lagundutako ekintzak zenbat herritarrengan izan duen eragina.
- Diru-laguntza ematen duen departamenduaren balorazioa laguntza eman zenean lortu nahi ziren helburuekiko egokitasunari buruz eta dagokion programarekin jarraitzearen edo kentzearen bidezkoitasunari buruz.

17. Artikulua.

Gardentasuna. Ierro estrategiko bakoitzean emandako diru-laguntza guztiak urtero argitaratuko dira udal webgunean. Bertan adieraziz laguntzak nork jaso dituen, zenbatekoa, eta diruz lagundutako ekintza.

18. Artikulua.

Planaren indarraldia amaituta, eta berria egin aurretik, Alkateak ebaluazioa egingo du Ogasun Batzordean. Bertan, gutxienez, honakoak jaso beharko dira: Planaren betetze maila, lortu nahi ziren helburu eta eraginetan diru-laguntzek izan duten eraginkortasuna eta efizientzia eta ondorioak; eta horrekin batera, hurrengo Diru-laguntza Plan Estrategikoa egiteko iradokizunak.



ABALTZISKETA

IV. KAPITULUA FINANTZAKETA

19. Artikulua.

Abaltzisketako Udalak ematen dituen diru-laguntzak Erakunde bakoitzaren Aurrekontuen IV. kapituluaren kontura izango dira. 2018urterako, hasieran.

Aurreikusitako zuzkidura ekonomikoa hau da:

1. Eranskina: IV kapituluaren3.600,00 €.

AZKEN XEDAPENA

Plan hau indarrean sartuko da behin betiko testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuta, Toki Erregimeneko oinarrien legeko 70.2 artikulua xedatzen duena aintzat hartuta, eta indarrean jarraituko du Udalaren Udalbatzarrak aldatu edo derogatzea erabaki arte.



ABALTZISKETA

ERANSKINA 1 / ANEXO 1

Partida presupuestaria	Objetua/Objeto	Zenbatekoa/Importe	Kudeaketa mota/Modalidad de gestion
434.323.00.01	Txalburu eskolako guraso elkartea	1500	Zuzena. Zuriketa
481.340.00.01	Herritarrek-kirol taldea	500	Zuzena
422.334.00.01	Hitzarmena-Ataria	1600	Hitzarmena
Guztira		3.600	

4- ALKATEAREN EBAZPENAK ONARTZEA

i. 2017/30... IRAILEKO FAKTURAK

BAT: Dekretu honi erantzen zaion, 13.039,93 eurotako faktura zerrenda onartzea ordainketak egiteko.

ii. 2017/32....BEGIRALEEN IKASTAROA

BAT: Amezketako Udalak antolatu duen begirale ikastaroa burutzegatik, Abaltzisketako herritarrei diruz ez laguntzea, ondorengo arrazoiengatik:

- Udalerriz kanpo ikastaroak burutzen dituzten herritar gehiago badaude eta inolako laguntzarik ez dute udalaren aldetik.
- Udalak herritarren artean banaketarik ezin du egin.

iii. 2017/33...INGELESEKO KLASEAK EMATEKO GELA

BAT: Abaltzisketako Txalburu Eskolako Guraso Elkarteari, 2017-2018 ikasturterako Udaletxeko lokala erabiltzeko baimena ematea.



ABALTZISKETA

iv. 2017/34....IBERDROLARI BAIMENA

BAT: Iberdrola Distribución eléctrica S.A.U.k aurreikusita duen trazadu aldaketa egiteko baimena onartzea.

BI: Obra eta eraikuntza zerga kontzeptuan, 60,57 € ordaintzea.

v. 2017/35... URRIKO FAKTURAK

BAT: Dekretu honi eranstean zaion, 639,61 eurotako faktura zerrenda onartzea ordainketak egiteko.

vi. 2017/36....G.U LIZENTZIA

BAT.-Adur eta Egoitz Gorostidik burutu nahi duten obra exekutatzeko baimena onartzea.

BI: Obra eta eraikuntza zerga kontzeptuan, 1.262,16 € ordaintzea.

vii. 2017/37... HARITUZ BERTSOZALE ELKARTEA

BAT: "Harituz Bertsozale Taldeari" 500,00 eurotako laguntza onartzea.

viii. 2017/38....EGUTEGI FISKALA

<i>Errolda / Padrón</i>	<i>Ordaintzeko epeak/Plazos de pago</i>
Trakzio mekanikoko ibilgailuak Vehículos de tracción mecánica	208ko maiatzaren 2tik uztailaren 2 arte 2 de mayo a 2 de julio de 2018.
Ondasun higiezinaren gaineko zerga Impuesto sobre bienes inmuebles	2018ko maiatzaren 16tik ekainaren 30a arte 16 de mayo a 30 de junio de 2018.
Ekonomia-jardueren gaineko zerga Impuesto sobre actividades económicas	2018ko urriaren 2tik azaroaren 10a arte 2 de octubre a 10 de noviembre de 2018.
Zabor bilketa zerbitzuaren tasa Tasa servicio recogida de basuras	2018ko uztailaren 2tik abuztuaren 31 arte 2 de julio a 31 de agosto de 2018 2019ko urtarrilaren 2tik otsailaren 28 arte 2 de enero a 28 de febrero de 2019

ix. 2017/39:...AZAROO FAKTURAK



ABALTZISKETA

BAT: Dekretu honi eransten zaion, 13.864,51 eurotako faktura zerrenda onartzea ordainketak egiteko.

x. 2017/40... J.E. LIZENTZIA

BAT: Juan mari Esnaolak eskatutako lanak burutzeko baimena onartzea

Mahaikideek , alkatearen ebazpenen berri eman da geratu da .

5- 2017-02 KREDITU ALDAKETA ONARTZEA. KREDITU GEHIGARRIEN PROPOSAMENA

Udal zerbitzuek dituzten premiei eta obligazioei aurre egiteko, beharrezkoa da hainbat gastu berehala egitea. Izan ere, horiek atzeratuz gero sortuko litzatekeen kalteak eragin nabarmena izango luke zerbitzuen kalitatean. Aurrekontuaren exekuzioaren arabera, ordea, gastu partidetan ez dago nahiko krediturik aipatutako gastuei aurre egiteko. Ondorioz, kredituak sortzeko edo, hala badagokio, gehitzeko proposatzen da, ondoko taulako xehetasunaren arabera:

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0000.131.924.00.01 2017	BEHIN BEH.LANGILEEN LANS.: PARTAIDETZA	0,00	2.000,00	2.000,00
1 0000.210.163.00.01 2017	AZPIEG.ETA ONDAS.GASTU:BIDEEN GARB.	3.000,00	1.450,00	4.450,00
1 0000.210.171.00.01 2017	AZPIEG.ETA ONDAS.GAST:LORATEG. ETA PARKE	100,00	800,00	900,00
1 0000.221.333.00.04 2017	GASOLEOA ETA PELETA. GOIBEGI ETA KULTURE	1.400,00	2.300,00	3.700,00
1 0000.221.342.00.01 2017	ELEKTRIZITATEA: PILOTALEKUA	500,00	650,00	1.150,00
1 0000.221.432.00.01 2017	ELEKTRIZITATEA: LARRAIT.INFORMAZIO GU	1.500,00	710,00	2.210,00
1 0000.626.920.00.01 2017	ZERBITZ.FUNTZION.INBER: ORDENAGAILU BERR	0,00	405,00	405,00
1 0000.601.323.00.01 2017	ESKOLA ETA OSTATUAREN EREMUA HANDITZEA	0,00	60.194,50	60.194,50



ABALTZISKETA

1 0000.434.323.00.01 2017	BESTE ENTITATEEI: O.H.O. ESKOLA	1.500,00	500,00	2.000,00
1 0000.623.342.00.01 2017	ZERB.FUNTZION: PILOTALEKURAKO MARKADOREA	4.200,00	35,99	4.235,99
1 0000.421.162.30.01 2017	TOLOS. MANK.HONDAK.TRATAMENDUA	10.000,00	3.200,00	13.200,00
GUZTIRA		22.200,00	72.245,49	94.445,49

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
d	1 0000.622.933.00.01 2017	ZERB.FUNTZ.INBERT.GASTUAK: ÑAÑARRI MANTE	42.243,00
c	2 0000.720.153.20.01 2017	DIPUTAZIOA: HERRI BIDEEN DIRULAGUNTZA	29.380,32
c	2 0000.391.151.00.01 2017	ISUNAK. HIRIGINTZA	622,17
FINANTZAKETA GUZTIRA			72.245,49

KODEEN AZALPENA

- a) Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina.
- b) Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintza gerakina
- c) Sarrera berri edo handiagoak.
- d) Kredituen baliogabetze baja.
- e) Kreditu eragiketak.

Mahaikideek, aho batez **ERABAKI DUTE:**

Lehena.- 2017/02 zenbakia duen kreditu aldaketari behin behineko onarpena ematea.

Bigarrena.- Udal Erregimenari buruzko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 1/1985 Legeko 112.3 artikuluan, Udal Entitateen Aurrekontuari buruzko otsailaren 26ko 4/1991 Foru Araueko 15.1 artikuluan eta Udal Entitateen Aurrekontuaren Araudia onartzen duen abenduaren 1eko 96/1992



ABALTZISKETA

Foru Dekretuko 19.1 artikuluan ezarritakoa betez, hamabost egunetan jendaurrean jartzea, dagokionak bere alegazioak tarteratu ditzan.

Hirugarrena.- Jendaurreko epealdia iragan eta alegaziorik tarteratu ezean, behin betikotzat onartuta ematea, erabaki berririk hartu beharrik gabe.

6- 2017KO 2. SEILABETEKO ZABOR ERROLDA ONARTZEA .

2017ko 2. seilabeteko zabor bilketa erroldari onarpena emateko proposamena mahairatzen da, ondoren, tasak kobratu ahal izateko.

Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araugintza Erregelamenduaren 41.18 artikulua betetzearren, 2017-02 zabor bilketa errolda onartu ondoren, errolda hori jendearen agerian jarri behar da uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Udal Ogasunen Arautzaileak, 14. artikuluko 1. zenbakian agindutakoa betez. Halaber borondatez ordaintzeko epearen eta eraren berri ematen da, apirilaren 9ko 27/1991 Foru Dekretuak, Gipuzkoako Herrialde Historikoko Zerga bilketa Erregelamendua onartzekoak, 78. artikulua eskatu bezala.

Jendaurreko epea, hilabetekoa izango da, dagokionak erreklamazioak aurkezteko. Epea iragan eta alegaziorik ezean, dagoen bezala onartutzat emango da, erabaki berririk hartu beharrik gabe.

Ordaintzeko epea, borondatezkoa, 2018ko urtarrilaren 2tik otsailaren 28 arte.

Aipatutako epean zorrak ordaintzen ez badira, prozedura exekutibotik eskatuko dira eta horiei premiamenduzko errekarua, berandutza interesak, eta sor daitezkeen kostuak gehituko zaizkie.

Mahaikidek ERABAKI DUTE:

2017-02 zabor bilketa erroldari onarpena ematea.

7- ALKATEAK AZAROAREN 20AN, OSTATU ETA ESKOLAREN EREMUA HANDITU ETA ATONTZEKO PROIEKTUA ONARTU DUELA JAKITERA EMATEA, LEADER DIRU-LAGUNTZARA BIDERATZEKO.



ABALTZISKETA

Kontutan hartuaz, 2017ko azaroaren 2ko Euskal herriko Aldizkari Ofizialean, landa eremuen garapenerako laguntzak arautzen duen Agindua argitara eman dela.

Deialdiaren hirugarren eranskinean, proiektuari onarpena eman izanaren egiaztatzea eskatzen da, eta Alkatearen ontzat eman izanaren ebazpena igorri zen.

Aipatu proiektuaren zenbatekoa, HIRUROGEI MILA EHUN ETA LAUROGEITA HAMALU EURO ETA BERROGEITA HAMAR ZENTIMOTAKOA (60.194,50€) da, B.E.Z.a barne da.

Eta mahaikideek ERABAKI DUTE:

1. Abaltzisketako Alkateak ontzat eman duen, ABALTZISKETAKO ESKOLA ETA OSTATUAREN EREMUA HANDITU ETA ATONDU proiektua berroneste.

8- GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO GOBERNANTZAKO ETA GIZARTEAREKIKO KOMUNIKAZIOKO DEPARTAMENTUAREN ETA UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA, ENTITATEEN KONTAKTU DATUAK LAGATZEARI BURUZKOA ONARTZEA.

Gipuzkoako Foru Aldundiako Gobernantzako eta Gizartearekiko komunikazioko departamentua eta udalaren arteko lankidetzaren hitzarmena sinatzeko proposamena jaso da udal honetan.

Hitzarmenaren edukiak honela dio:

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO GOBERNANTZAKO ETA GIZARTEAREKIKO KOMUNIKAZIOKO DEPARTAMENTUAREN ETA ABALTZISKETAKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA, ENTITATEEN KONTAKTU DATUAK LAGATZEARI BURUZKOA

BILDU DIRA

Batetik, **Imanol Lasa Zeberio** jauna, Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuko foru diputatua.

Bestetik, Abaltzisketako Udaleko Alkatea, **Jon Zubizarreta Aldaia**, haren izenean eta ordezkartzan dituen eskumenei esker.



ABALTZISKETA

Bi alderdiek elkarri behar besteko gaitasun juridikoa aitortzen diote ordezkatzan dituzten organismoak egintza honetara makurtzeko, eta lankidetzan hitzarmen hau izenpetzea erabaki dute termino hauetan:

AURREKARIAK

Gobernanzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuak jardun esparru eta funtzio hauek ditu esleituta:

- a) Diputatuen Kontseiluaren Idazkaritza.
- b) Foru Aldundiaren, eta Batzar Nagusien nahiz Arartekoaren harremanak eta komunikazioak koordinatzea.
- c) Legezketasunaren barne kontrola, aholkularitza juridikoa, oro har, eta Foru Aldundiaren eta haren organoen ordezkartza eta defentsa.
- d) Udalen nahiz udalez gaindiko erakundeen mugaketa esparruan Foru Aldundiak dituen eskumenak, Gipuzkoako Toki Erakundearen Foru Erregistroa eta i) paragrafoan aipatzen diren gaitan udalei aholkularitza ematea.
- e) Departamentuen arteko koordinazioa eragitea araugintza egutegi bat ezartzeko.
- f) Foru Aldundiak dituen eskumenak Gipuzkoako Lurralde Historiko Batzar Nagusietako hauteskudeen dei egile den heinean.
- g) Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala.
- h) Argitalpenak.
- i) Funtzio Publikoa, antolakuntza eta informazio sistemak, langileen araubide juridikoa eta lansari sistema. Izaera nazionalako gaikuntza duten udal funtzionarioak.
- j) Parke mugikorra.
- k) Babes zibila, suhiltzaileak eta salbamendua.
- l) Departamentu askotako zerbitzuak.
- m) Foru sektore publikoaren jardueren eta ondasun eta interesen erregistroa.
- n) Modernizazio politikak, informazio eta komunikazio sistema korporatiboak eta administrazio elektronikoa.
- o) Gardentasuna koordinatzea.
- p) Informazioaren gizarterako zerbitzuak eta sistemak. q) Herritarren partaidetza.
- r) Kanpo harremanak.
- s) Indarrean diren arauetan esleitzen zaizkion gainerako eskumenak.

II. Funtzio horiek betetzeko ezinbestekoa da entitateei, pertsoneri eta gizarteari oro har Gipuzkoako Foru Aldundiaren politiken, programen, zerbitzuen eta ekimenen berri ematea. Beraz, lurralde osoan komunikazioa kanalizatzeko helburuarekin, Gobernanzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuak Gipuzkoako Eragileen Datu Basea sortzea erabaki du, Foru Aldundiaren laguntzaile izan daitezkeen enpresa, elkarte eta entitate eragileen kontakturako informazioa kudeatzeko balioko duena. Entitate laguntzaile hauei buruzko datuen hasierako bilketarako informazio-iturri publikoak erabili dira (errolda publiko irekiak).

III. Datu basean gordetako lurraldeko entitate eragileen kontakturako datuen eguneraketa eta egiazkotasuna bermatzeko helburuarekin, interesgarritzat jo da udalen titularitatekoak diren errolda administratiboetako datuak erabiltzea, horietan agertzen baitira udalerrietako entitateen kontakturako datuak.

IV. Hitzarmena gauzatzeak dakar Gobernanzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuak telematikoki egiaztatu ahal izatea udalaren erroldetan gordetzen diren kontakturako datuak eta Gipuzkoako Eragileen Datu Baseko datuak. Entitate eragileekin komunikazio arina eta eraginkorra mantendu ahal izateko datu eguneratuak izatea da helburua.

V. Datuak egiaztatzeko tramitea ARAZI IKT SL enpresak kudeatuko du, Gobernanzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuak hala eskatuta. Gainera, datuen tratamenduan konfidentzialtasuna betetzeko kontratua sinatuta dauka ARAZI IKT SL enpresarekin.



ABALTZISKETA

VII. Horregatik guztiagatik, lankidetzaz hitzarmen hau sinatzea erabaki dute bi alderdiek, klausula hauen arabera:

KLAUSULAK

LEHENA.- Xedea.

Hitzarmen honen xedea da ezartzea, batetik, Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuak zein baldintzaren arabera tratatuko dituen udalerrietatik jasotako entitateen kontakturako datuak Gipuzkoako Eragileen Datu Basean gordetako datuak egiaztatzeko, eta, bestetik, zein den foru departamentu horrek zaindu beharreko konfidentzialtasun esparrua.

BIGARRENA.- Datuen izaera eta hitzarmenaren xedea lortzeko metodologia

Hitzarmen honen xede diren datuak entitateen kontakturako datuetara mugatuko dira soilik. Datu hauek eskatuko dira, funtsean: Izena, posta kodea, emaila, kontakturako telefono zenbakia, kontakturako pertsonaren izen-abizenak.

Hitzarmenaren xedea lortzeko metodologiari dagokionez, datuak lortu eta egiaztatzeko ardura izango duen ARAZI S.L. enpresak, sistema informatikoak erabiliko ditu soilik, hala nola, SFTP, FTPS, SSL edo antzekoak. Kasu guztietan, sistema horiek bete egin beharko dituzte gutxienezko segurtasun, zuzentasun eta konfidentzialtasun bermeak.

HIRUGARRENA.- Izaera pertsonaleko datuen tratamendua.

Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko Lege Organikoa erregulatzen duen 1720/2007 Errege Dekretuko 2. artikularen arabera, kontakturako datuak ez dute datu pertsonalen kontsiderazioa izango. Kontakturako datuen sailkapen honen barnean aurkitzen dira pertsona juridikoei buruzko datuak, eta hauetan zerbitzua ematen duten pertsonen buruzko ondorengo datuak: izen-abizenak, funtzioak, lanpostua eta laneko posta helbidea, helbide elektronikoa, telefono zenbakia eta fax zenbakia.

LAUGARRENA.- Hitzarmena indargabetzea

Edozein arrazoiengatik hitzarmena indargabetuko balitz, Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuak berehala itzuli beharko du hitzarmen hau betetzeko eskura izan duen informazio guztia, euskarria edozein izanik ere.

Informazio hori itzuli arte, Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuak behar bezala gordeko ditu datu horiek.

BOSGARRENA.- Erantzukizuna.

Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuak erantzun egingo die hitzarmen honetan ezarritako obligazioetakoren bat ez betetzetik eragindako kalte eta galera guztiei, berak edo informazioarako sarbidea duen langileren batek sorrarazitakoei.

SEIGARRENA.- Indarrean jartzea eta indarraldia.

Hitzarmen hau izenpetzen den momentuan jarriko da indarrean.

Lau urteko indarraldia izango du, izenpetzen den egunetik kontaktzen hasita. Gehienez ere beste lau urtez luzatu ahal izango da, non eta ez den indargabetzen edo alderdiren batek ez duen berariaz salatzen.



ABALTZISKETA

Adostasunaren adierazgarri eta hitzartutako guztia behar bezala jasota gera dadin, alderdiek hitzarmen hau izenpetzen dute bi aletan, goiburuan ageri den tokian eta egunean.

Adostasunaren adierazgarri eta hitzartutako guztia behar bezala jasota gera dadin, lankidetzaz hitzarmen hau izenpetzen da bi aletan eta ondorio bakarrerako.

Abaltzisketan, 2017ko abenduaren 15ean.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernanzako eta Abaltzisketako Udalaren izenean
Gizartearekiko Komunikazioko departamentuaren izenean

Imanol Lasa Zeberio

Jon Zubizarreta Aldaia

Gobernanzako eta Gizartearekiko Komunikazioko
Foru Diputatua

Abaltzisketako Udaleko Alkatea

Kontutan hartuaz, Aldundiarekin datuak lagatzeko beste hitzarmenak sinatu direla.

Kontutan hartuaz, enpresa pribatu bati datuak lagatu behar dizkiela, udal honek beraien artean duten hitzarmenean legezko betekizunak jasota direla, eta edozein gertakizunen aurrean udala salbu dela.

Mahaikideek ERABAKI DUTE:

1. Gipuzkoako Foru Aldundiako Gobernanzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentua eta Udalaren arteko lankidetzaz hitzarmena sinatzeko proposamena ontzat ematea.
2. Hitzarmena sinatzeko Alkatea baimentzea.



ABALTZISKETA

9- GALDERAK ETA ESKAERAK.

BAT.- Ostatuko sukaldeko hotzgailu bikoitza zena hondatu egin da denboraren ondorioz, eta konpontzeko aurrekontua 600,00 euro ingurukoa dela jakitera eman da, B.E.Z.a kanpo.

Ostatuaren kudeatzaileekin sinatuta dagoen hitzarmenarekin jarraituaz, gastua Udala eta kudeatzaileen artean erdibana egitea adostu da.

BI.- Herriko hainbat haur eta gazte pilotalekua erabiltzeko fitxak erostea etortzen direla dio Alkateak. Herriko haurrentzako argia pizteagatik kanpokoei eta helduei bezala kobratzea ez dela egokia dio, bere iritzian.

Horregatik, proposatu du, gimnasioan bezala, pilotalekuko bazkide egitea, era xume batetan eta argia pizteko giltza ematea.

Azkenik, eztabaidatu ondoren, mahaikideek erabaki dute:

1. Pilotalekuko argia pizteko giltza emateko arautegia prestatzea, ondoren adierazten diren atalak jasoaz:
 - Eskubidea: Abaltzisketan erroldatuak izango dute.
 - Argia piztu eta itzaltzeko betebeharra izango dute eta beti ere heldu batekin joan behar da.
 - Prozedura: Eskaera orria bete eta udalean sinadurarekin entregatu, sinatzen duena arduradun delarik.
 - Prezioa: Hiru hileko eperako 15 €/ familiako.
2. Erabaki hau 2018ko urtarrilean hasiko da indarrean.
3. Herritarrei erabakiaren berri ematea.

HIRU.- Herrian karabinarekin hainbat faroletan eta beste eremu publikoetan kalteak egin direla ikusi da. Honetaz gain, adin gabekoei, arriskutsuak izan daitezkeen labana eta aizkorakin dabilzala ere jakin da.



ABALTZISKETA

Eremu publikoetan, hirigunean eta jendea dagoen lekuetan honelako materialarekin ezin dela ibili gogorazteko idatzia herrian banatzea erabaki da.

LAU.- Alkateak proposatzen du, abenduaren 18tik 23 bitarte TXALBURU ASTE KULTURALA ANTOLATU nahi duela eta horretarako hainbat ekitaldi prestatuak dituela. Aurrerago zehaztasunez, zinegotziei agertzeko geratu da.

Eta besterik ezean, gaueko 21:10etan bilera amaitutzat eman du Alkateak.

Alkateak O.E.

Idazkariak